

Irakaskuntza gida

POLITIKA ZIENTZIA ETA KUDEAKETA PUBLIKOKO GRADUA

www.ehu.eus/eu/web/gizarte-komunikazio-zientzien-fakultatea



Egungo gizarteetan oso hedatuta dagoen ideia da **fenomeno eta gizarte harreman orotan politika dagoela**. Eta, egia esan, politika publikoek eragina dute gure bizitzan.

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduak, **administrazio publikoen eta erakunde politikoaren funtzionamendua** ikertuko duzu, hauteskunde prozesuak aztertu eta horien inguruko prospekzioak egingo dituzu. Ideia politikoaren jatorriari eta sorrerari buruzko gogoeta egiteko espazio bat izango duzu. Ikerketa soziopolitikoaren balioak ohartuko zara eta ikerketa jardunerako beharrezkoa den ikuspegia osatzen duten tresnak ezagutuko dituzu. Horrez gain, hiritarren zerbitzura egongo diren politika publiko eraginkorrak diseinatzeko ikasiko duzu.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu:

- Arazo politikoak eta gizartearen premiak aztertzeke.
- Administrazioaren plangintza eta kudeaketarako prozesuak ezartzeko.
- Erakunde eta sistema politikoaren egitura eta funtzionamendua ulertzeko.
- Nazioarteko politika ulertzeko.
- Politika publikoak planifikatu eta ebaluatzeke.
- Komunikazio politikoko kanpainak diseinatzeko.
- Fenomeno politikoak eta erakundeetakoak aztertzeke adierazleak sortzeko.

Eleaniztasuna

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduak oinarritzko eta nahitaezko irakasgai guztiak eta hautazkoetako gehienak autonomia erkidegoko bi hizkuntzetan eskaintzen dira, **euskaraz eta gaztelaniaz**. Gradu Amaierako Lana bi hizkuntza hauetako edozeinetan egin daiteke.

Gainera, nazioarteko profila aitortu ahal zaizu Nazioarteko Sakontze Aipamena lortzen baduzu.

Prestakuntza duala

Prestakuntza dualeko ibilbidea aukera dezakezu, unibertsitatean eta enpresa edo erakunde batean prestakuntzaaldiak konbinatzen dituen.

Profil profesionalari dagozkion gaitasunak garatu ahal izango dituzu, enpresen edo erakundearen ingurune erreal batean ikasiz eta aipamen espezifiko bat lortu.

Prestakuntza osagarria

Graduaren edukiei lotutako hainbat arlotan espezializatutako prestakuntza praktikoko ikastaroak eskaintzen ditu fakultateak graduaren zehar. Ikastaro hauek osagarriak eta doakoak dira horietakoren batean izena eman nahi duten ikasleentzat.

IKASKETA-PLANA

KREDITU BANAKETA ETA IKASTORDUAK GUZTIRA

Maila	Adarreko Oinarrizko Irakasgaiak	Beste adar batzuetako Oinarrizko Irakasgaiak	Nahitaezko Irakasgaiak	Hautazko Irakasgaiak	Gradu Amaierako Lana	Guztira
1	60					60
2			60			60
3			42	18		60
4			24	24	12	60
GUZTIRA	60		126	42	12	240

AIPAMEN ETA AITORTZAK

Nahi izanez gero, Graduak lau aipamenetako bat ikas dezakezu. Aipamena lortzeko bere hautazko irakasgaiak gaingiduta izan behar dira, hirugarren eta laugarren mailetan.

ANALISI ETA AHOLKULARITZA POLITIKOA (1A)	ANALISI ETA KUDEAKETA PUBLIKOA (2A)	NAZIOARTEKO HARREMANAK (3A)	DUALA
Komunikazioa eta Marketin Politika	Sektore Publikoaren Ekonomia	Nazioarteko Antolakuntza	Ordaindutako egonaldia enpresan edo erakundean 3. eta 4. mailetan. Tutoretzapeko prestakuntza ibilbidea: - 48 kreditu, hautazko 8 irakasgaren baliokidea. - Gradu Amaierako Lanaren 12 kreditu.
Gatazka Politika eta Ekintza Kolektiboa	Esku-hartzeko Teknikak Administrazioan	Gaur Egungo Nazioarteko Politika	
Genero eta Politika	Politika Publikoen Ebaluazioa	Diplomazia eta Kanpo Politika	
Tokiko Gobernuak	Genero eta Politika	Gatazken Analisia eta Ebazpena	
Hauteskunde Analisia eta Prospektiba	Tokiko Gobernuak	Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak	
Interes Taldeak eta Gizarte Mugimenduak	Aldaketa eta Berrikuntza Publikoa		
Partehartze Politika	Giza Baliabideen Kudeaketa		
Sistema Politikoa Munduan	Gobernantza eta Maila Anitzeko Gobernuak		
Teoria Politikoa Garaikidea II			

Gainera, ondoko aipamen eta aitortza hauek lortu ahal dituzu:

NAZIOARTEKO SAKONTZEA	EUSKARA*	BIKAINASUNA
Baldintzak: 1. Gutxienez 15 kreditu atzerriko hizkuntzetan edo UPV/EHUk eskaintzen duen «Intercultural Competences» ikastaroa egitea. 2. Nazioarteko egonaldi bat, gutxienez hiru hilabetekoa, UPV/EHUko truke programa batean. 3. Atzerriko hizkuntza batean C1 maila edo goragokoa.	C1 mailaren titulua aurkeztetik salbuesten duen ziurtagiria: - 48 Kreditu euskaraz + Gradu Amaierako Lana + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 12 Kreditu espezifikoa. - 84 Kreditu euskaraz + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 12 Kreditu espezifikoa. - 114 Kreditu euskaraz + Euskarako hizkuntza prestakuntzako 6 Kreditu espezifikoa. - 144 Kreditu euskaraz.	Graduak kreditu guztiak lehenengo ohiko deialdian gaingiduten badituzu.

* Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoari jarraituz, UPV/EHUk ikasle bakoitzaren espediente akademiko pertsonalean automatikoki jasotzen du ikaslea salbuestita izango dela C1 mailaren baliokide diren euskarako hizkuntza-tituluak eta ziurtagiriak egiaztatzei, Euskal Autonomia Erkidegoan.



LEHEN MAILA - 1. Lauhilekoa

Politika Zientziako Oinarrizko Kontzeptuak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Funtsezko kontzeptuak, teoriak, tipologiak, ikuspegiak eta eztabaidak ulertzea. Gertaera politikoen interpretazioari bideak irekitzea.

EDUKIAK

Politikaren zientzia. Politika eta sistema politikoa. Estatuak: kontzeptua eta garapen historikoa. Estatuaren barneko botere politikoaren banaketa. Estatuaz gaindiko erakundeak: Postestatalismoa? Sistema ez demokratikoak. Ordezkatze-demokrazia: Poliarkiak. Ordezkatze-demokrazien garapena.

Konstituzioa eta Globalizazioa

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Mendebaldeko tradizio modernoaren ekarpen politiko eta intelektual nabarmenak ezagutu eta aztertzea. Kontzeptu politiko eta sozialen historikotasunaren kontzientzia hartzea.

EDUKIAK

Pentsamendu politikoa eta historia. Modernitatea eta bere aitzindariak. Absolutismoa eta Ilustrazioa. Iraultzen aroa. Mundu garaikidearen ideologiak eta mugimendu politiko-sozialak.

Ekonomia Politikoa

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gaur egungo errealitatea aztertu eta ulertu ahal izateko gaitasunak eta oinarrizko ezagupenak lortzea. Etorkizunean lan munduan ikasleek aurre egin beharko dizkioten arazo sozioekonomikoen ulermenerako gaitasunak lortzea.

EDUKIAK

Ekonomia politikoa eta gizarte zientziak. Pentsamendu ekonomikoaren korrante nagusiak. Merkatuen funtzionamendua. Konkurrentziako merkatuaren mugak. Jarduera ekonomikoaren neurketa. Estatuak eta ekonomia. Gaur egungo ekonomiaren tendentziak, arazoak eta erronkak.

Analisi Soziologikoaren Oinarriak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Errealitate sozialaren azterketan erabiltzen ditugun oinarrizko kontzeptuak zehaztasunez ezagutzea, mugatzea eta definitzea. Errealitate sozialaren produkzioaz, erreproduzioaz eta eraldaketaz aritzeko erabiltzen ditugun kontzeptu teoriko nagusiak erabiltzea eta egoera zehatzetara aplikatzea, bai maila estrukturalean zein eguneroko bizitzan.

EDUKIAK

Soziologiaren eraketa zientzia gisa. Soziologiaren aztergaia: egitate eta ekintza soziala. Elkarrekintza eta hartu-eman sozialak. Rol sozialak eta kontrol soziala. Elkartze sozialak: kolektiboak, erakundeak, instituzioak. Boterea eta autoritatea: klasea, arraza, adina, generoa. Aldaketa eta gatazka sozialak.

XX. Mendeko Historia Politiko eta Soziala

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Munduaren garapenaren bide nagusiak aztertu, batez ere Europan eta XX. mendean zehar, gure gaur egungo mundua ulertzeko gai izateko.

EDUKIAK

Inperialismoaren garaia. Lehenengo mundu gerra. Sobietar iraultza. Gerren arteko politika eta gizartea. Bigarren Mundu Gerra. Gerra hotzaren mundu bipolarra. Nazioarteko ordena berria. Gizarte posmateriala.



LEHEN MAILA - 2. Lauhilekoa

Analisi Politikoaren Oinarriak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gertakari politikoetan eragile, estruktura eta testuinguruen arteko harremanak aztertzea. Gizarte tradizionala, modernoa eta gaur egunekoaren arteko ezberdintasunak ulertzea. Estruktura politikoaren logika autonomoa ulertzea, baita estrukturetan kanpoko indarrek zein eragileek lortutako aldaketak aztertzea ere.

EDUKIAK

Kultura politikoaren aztertzearen eredua: errealitate sozialaren mailak. Kontzientzia: Gizarte modernoa eta postmodernoren baloreak; Identitateak; Ideologiak. Estrukturak: Tradizioa, modernitatea eta postmodernitatea. Aktoreak: Gizarte zibila; Alderdiak eta interes taldeak; Gizarte mugimenduak eta eraldaketa soziala. Emaitzak: Ekintza kolektiboa eta politika publikoak.

Gizarte Erakunde eta Prozesuak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Oinarrizko egitura instituzionalak aztertzea: familia, hezkuntza sistema, erlijioa, lana, politika.

EDUKIAK

Egitura eta prozesu sozialen analisia: elementu sistematikoak. Egiturak eta prozesu ekonomikoak gaurko gizartean. Egiturak eta prozesu politikoak gaurko gizartean. Egiturak eta prozesu kulturalak gaurko gizartean.

Gizarte eta Politika Ikerketarako Sarrera

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Ikerketa prozesua eta bere faseak ezagutzea eta horietan sakontzea. Gizarte errealitatearen ezagutzari buruzko ikuspuntu orokorra hartzea, baita gizarte ikerketan agertzen diren paradigma metodologikoei buruzko azalpen orokorra ere.

EDUKIAK

Zientzia, metodo zientifikoa, ikerketa mailak eta ikerketa zientifikoen enpirikoa. Gizarte ikerketaren formulazio teorikoa. Teoriaren eraikuntza. Ikerketa prozesuaren pausoak. Ikerketaren dimentsio praktikoa eta ikerketarako baldintzak.

Gizarte Psikologia

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Elkarrekintzaren prozesu psikosozialak bereiztea eta koerlazioztatzea. Horien eragina analizatzea eta balioestea bai pertsonaren eraikuntzan bai gizarte markoen eraikuntzan. Pertsonaren, taldeen, antolakundeen eta erakunde sozialen oinarri psikosozialak aztertzea eta baloratzea.

EDUKIAK

Gizarte Psikologia, jendarteko elkarrekintzaren zientzia. Pentsamendu soziala. Norberaren identitatea (self-a). Jarrerak eta beste kontzeptu disposizional zenbait. Eragin sozialaren psikologia. Taldearen psikologia eta identitate sozialak.

Nazioarteko Harremanak

Adarreko Oinarrizkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Gaur egungo nazioarteko gizartearen genesisia eta egungo egoera aztertzea eta baloratzea. Gizateriak XXI. mendean maila globalean aurre egin behar dizkion prozesu, arazo eta erronka nagusiak antzematea.

EDUKIAK

Nazioarteko Harremanen sarrera teoriko-kontzeptuala. Nazioarteko Gizartearen Aktoreak. Nazioarteko Sistemaren Egitura. Nazioarteko Gizartearen oinarrizko prozesuak. Gizateriak Aro Globalean dituen erronka nagusiak.



BIGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Gobernua eta Administrazio Publikoa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Zehaztasunez gobernu eta administrazio aktoreen egitura inguruko kontzeptuak kudeatu, eta, oro har, politika eta administrazio arteko harremanak bereiztea, Euskal Erkidegoko eta Espainiako kasuei arreta bereizia eskainiz. Politikaren eta Administrazio Publikoaren eremuen lotura estuaz jabetzea.

EDUKIAK

Administrazio publikoa eta Administrazio Zientzia. Administrazioa sistema politikoaren barne. Egungo Administrazio publikoaren antolaketa eta kudeaketa. Administrazio Publikoaren egitura eta funtzioak. Giza baliabideen eta aurrekontuaren egitura eta kudeaketa. Gizarte aldakorrean gobernua eta administrazioa. Estatu gobernua eta administrazioa. Erkidegoetako gobernu eta administrazioa. Udal eta Foru Gobernu eta administrazioa. Europar Batasuna.

Pentsamendu Politikoaren Historia

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Mendebaldeko tradizio modernoaren sorkuntza politiko-intelektual nabarmen batzuk ezagutzea eta analizatzea.

EDUKIAK

Pentsamendu Politikoa eta Historia. Modernitatea eta bere aitzindariak. Absolutismoa eta Ilustrazioa. Iraultzen aroa. Mundu garaikidearen ideologiak eta mugimendu politiko sozialak.

Gizarte Ikerketa Kualitatiboa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 7 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Gizarte ikerketa kualitatiboaren funtsezko ezaugarriak ezagutzea. Gizarte ikerketa kualitatiboaren proiektua sortzen trebatzea. Informazio bilketarako teknika egokienak aukeratzen eta prestatzen saiatzea.

EDUKIAK

Gizarte Ikerketa kualitatiboaren instituzionalizazio prozesua: mailak eta ikuspuntuak. Gizarte ikerketa kualitatiborako prozesuaren uneak. Testuak/diskurtsoak ekoizten dituzten teknikak: Elkarrizketa irekia; Eztabaida taldea; Objektibazio kualitatiboko beste modalitate enpiriko batzuk. Ikerketarako txostena.

Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa: Inkesta eta Bigarren Mailako Datuak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak; 14 h Ordenagailuko Praktikak.

HELBURUAK

Izaera kuantitatiboko ikerketak burutu ahal izateko oinarritzko lanabesak ezagutzea, bai iturri sekundarioen bitartez bai iturri primarioen bitartez. Gizarte Ikerketa prozesuaren diseinuari dagozkion zereginak ikastea, hala nola, adierazleen eraikuntza eta lagingen hautaketa. Galde-sorta edo datu sekundarioen bitartez burututako ikerketen plangintza, diseinua eta jarduna aztertzea.

EDUKIAK

Gizarte Ikerketa Kuantitatiboa. Bigarren mailako datuen iturriak. Datu primarioak eskuratzen. Laginketa diseinua: tamaina eta lagingin-unitateen hautaketa. Galdesorta. Gizarte ikerketa Kuantitatiborako bestelako teknikak. Gizarte ikerketa Kuantitatiboaren txostena eta ikerketaren ebaluazioa.

Ordezkaritza eta Alderdi Politikoak


Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktikak.

HELBURUAK

Alderdiei buruzko oinarritzko ezagupenak jasotzea. Hauteskunde-prozesuak zuzentzen dituzten arauak jabetzea eta hauteskunde-sistemak ordezkaritza sortzerakoan dituzten ondorio politikoak ebaluatzen trebatzea.

EDUKIAK

Ordezkaritza politikoa eta ordezkatze-gobernua. Ordezkaritzaren erakundetzea: Ordezkaritzaren egiturak. Hauteskunde-sistema: osagaiak. Hauteskunde-sistemak: motak eta eragin politikoak. Alderdi politikoak. Alderdi-sistemak.



BIGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Portaera Politikoa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Balio politikoen eta jarrera politikoen sistemak portaera politikoaren aldagai aske gisa ulertzea. Gizarte garaikideetako parte hartze politiko erak identifikatzea. Portaera politikoak azaltzen dituzten aldagaiak ulertzea.

EDUKIAK

Portaera politikoa: oinarriak eta eztabaida nagusiak. Hauteskunde-portaera. Portaera eta ekintza. Portaera politikoaren formak: protesta, indarkeria, terrorismoa. Portaera politikoa eta ziberpolitika.

Konstituzio Zuzenbidea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Konstituzio arrazional-normatiboaren, Zuzenbidezko Estatu Konstituzionalaren eta demokrazia errepresentatiboaren esanahia, garrantzia eta balorea ulertzea. 1978ko Konstituzioan dauden oinarritzko erabakiak ezagutzea.

EDUKIAK

Konstituzioa: arau juridikoa. Konstituzioa eta botere konstituziogilea. Trantsizio politikoa eta 1978ko Konstituzioaren elaborazioa. Monarkia parlamentarioa. Zuzenbidezko Giza Estatu demokratikoa. Estatu Autonomikoa. Europako integrazioa.

Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa I

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika; 14 h Ordenagailuko Praktika.

HELBURUAK

Fenomeno politiko eta sozialak ikertzeko modu enpirikora lehen hurbilpen bat egitea. Estatistikari loturiko tresnen baliagarritasuna ulertzea.

EDUKIAK

Definizioa, tresnak eta datu baseak, Aldagaiak: definizioa eta datu diagramak. Aldagai kualitatiboak. Aldagai kuantitatiboak. Estatistika inferentziala.

Teoria Politico Garaikidea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Eztabaida teoriko-politiko garaikideak elikatzen dituzten oinarritzko kontzeptuak ikastea. Garai ezberdinak eztabai teoriko nagusien protagonista izan diren egile garrantzitsuak lantzea.

EDUKIAK

Zer da teoria politikoa? Boterearen kontzeptua eta teoriak. Legalitatea, legitimitatea eta betebeharrak politikoa. Teoria politikoaren nolakotasuna. Demokrazia kontzeptuak. Nazionalismoa, Lurraldea, Burujabetza, Federalismoa, Sezesioa, Globalizazioa. Justiziaren kontzeptua. Teoria politiko Feminista. Teoria politiko Kritika.

Komunikazioaren Teoriak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Komunikabideen Sistemaren eta Iritzi Publikoaren arteko harremanak analizatzea, gai garrantzitsu batzuen inguruan. Gaiari buruzko ikerketa zein komunikazio teoria nagusiak baloratu, era kritikoan.

EDUKIAK

Komunikazioari buruzko pentsamendu teorikoa. Informazioaren gizartea. Komunikazioa eta kultura. Iritzi publikoa.



HIRUGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Politika Publikoen Analisia

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Politika publikoen prozesua ezagutzea eta aztertzea, bere izaera zirkularra, irekia eta faktore askoren eragin menpekoa identifikatzearen. Politika publikoen alor eta dominen artean bereiztea. Inplikaturiko maila desberdinetako eragile desberdinak identifikatzea, baita politika publiko horretarako euren elkar harremanak ere.

EDUKIAK

Politika publikoen analisirako ikuspuntuak eta metodologia. Politika publikoak: Definizioa, testuinguruak, osagaiak eta zikloa; tipologiak. Arazoen definizioa politika publikoetarako abiapuntu gisa eta agenda politikoaren eraikuntza. Politika publikoen erabakiak hartze prozesuak. Politika publikoen inplementazioa eta kudeaketa. Politika publikoen ebaluazioa.

Administrazio Zuzenbidea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Herri Administrazioa zer den, nola funtzionatzen duen eta herritarrekin nolako harremanak dituen aztertzea.

EDUKIAK

Herri-Administrazioak. Administrazio-antolakuntza. Administrazio-zuzenbidearen iturriak. Herri-Administrazioaren iharduera. Administrazio-prozedura. Administrazio-errekurtsoak.

Politika Konparatua

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Politika Zientzietako metodologia konparatuaren ikuspegian sakontzea, tresna analitikoak erabiliz: sistema politikoaren funtzionamendu praktikoa, agenteak eta dinamikak deskribatu eta esplikatzeo metodologia konparatuarekin.

EDUKIAK

Politika konparatua eta metodo konparatua. Sistema politikoak prozesu historikoaren produktu gisa. Gobernu forma parlamentarioak, presidentzialistak eta erdi-presidentzialistak. Lurralde antolaketa ereduak konparaturik. Kultura eta azpi-kultura politikoak. Alderdi-sistema konparatuak. Egungo konparazio multidimentsionala eta enpirikoa.

Datuen Kudeaketa eta Analisi Estatistikoa II

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Ordenagailuko Praktika.

HELBURUAK

Tresna estatistikoen erabilera treratztea da, bi aldagai edo gehiagoren arteko erlazioei buruzko egoerak identifikatu eta aztertu ahal izateko, beti ere datuen azterketa anizkoitzaren logikatik abiatuta. Lagin bi edo gehiagoren arteko aldean hipotesi proben ebazpena aurkeztea.

EDUKIAK

Lagin/taldearen arteko diferentzien hipotesi probak. Bestelako metodoak batzbestekoen alderaketa anizkoitzetarako. Aldagaien arteko erlazioaren azterketarako argibide kontzeptualak. Bi aldagai kategorizatuen arteko erlazioa. Azterketa anizkoitza kontingentzia tauletan. Bi aldagai tartekatuen arteko erlazioaren kuantifikazioa.

Nazioarteko Antolakuntza (3A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Nazioarteko antolakuntzak gizartean duen garrantzia aztertzea. Prozesu politikoak diplomazia aldeaniztunean aztertzea. Gobernagarritasun globala aztertzea.

EDUKIAK

Nazioarteko gizartea eta antolakuntza. Nazioarteko gobernu erakundeak. Nazioarteko erregimenak. Gobernu kanpoko erakundeak eta estatuz haraindiko presio taldeak.

Prestakuntza Duala I

Hautazko ibilbidea. 24 kreditu. Praktika enpresa edo erakundeetan.

Europako Integrazioa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Europako Batasunaren oinarritzko ezaugarriak sistema politiko berezi bezala eta Europako integrazio prozesuaren gaur egungo dinamikak, erronkak eta mugak nagusiak era kritikoan aztertzea.

EDUKIAK

Europaren inguruko ideien bilakaera historikoa. Gaur egungo integrazio prozesuak eta integrazio teoriak. Europar eraikuntzaren prozesu historikoa. Europar Batasunaren erakunde sistema. Antolamendu juridikoa. Finantzaketa eta aurrekontuen onarpena. Ekonomia eta Moneta Batasuna. Europar Batasunaren politikak. Erregioen papera europar integrazio prozesuan. Kanpo Harremanak. Zabalkuntza. Prozesuaren gaur egungo egoera eta etorkizuneko erronkak.

Azterketa Kuantitatibo Aurreratua

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h Magistrala; 28 h Laborategiko Praktika.

HELBURUAK

Aldagai askoren erlazio ereduak identifikatu eta ebazteko tresnak Ezagutzea. Datu mota eta teknika egokien erabilgarritasuna irizpide, teknikak egoki bereiztea eta aplikatzen trebatzea.

EDUKIAK

Azterketa aldagaianitza. Erregresio anizkoitza. Bariantzaren faktore Azterketa. Osagai Nagusizko Faktore-azterketa (ONA). Korrespondentzien Faktore-azterketa (KBA/KAA). Quick Cluster: mordoan sailkapen ez-hierarkikoa (K-MEANS).

Proiektuak Diseinatu eta Egitea

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Ikerketa proiektu mota aipagarrienak osatu ahal izateko beharrezkoa den ezagutzaz jabetzea. Giro akademiko zein profesionaleko ikerketetarako proiektu edo egitasmoak diseinatzea eta burutzea, ahalik eta modu metodologiko eta kontzeptual egokienean.

EDUKIAK

Proiektuak diseinatu eta egiteko oinarriak. Ikerketa-diseinuak. Ikerketa-proiektuak aurkezteko elementu aplikatuak. Ikerketa-diseinu aplikatuak. Ikerketaren balioespena.

Gaur Egungo Nazioarteko Politika (3A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Oraintsuko historia eta nazioarteko gizarte garaikidearen egungo egoera aztertzea. XXI. mendeko prozesu, arazo eta erronka garrantzitsuenak baloratzea.

EDUKIAK

Gerra Hotza Europan. Distentsioa Ekialdearen eta Mendebaldearen artean. Gerraosteko nazioarteko sistemaren porrota. Nazioarteko sistema berri bat?

Sektore Publikoaren Ekonomia (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Sektore publikoaren zeregina eta ekonomian dituen ondorioak ikuspegi kritiko batetik analizatzea. Estatuak jardura ekonomikoan eragiteko dituen tresnak ezagutzea.

EDUKIAK

Sektore publikoa ekonomian. Estatuak ekonomian duen esku hartzearen bilakaera. Sektore publiko espainiarraren mugaketa eta dimentsioa. Aurrekontu orokorrak.

Euskal Gobernantza Ekonomikoa: Finantziak eta Aurrekontuak

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Euskal ekonomiaren oinarritzko eragileak eta egitura aztertzea. Erakunde publikoen aurrekontu-politikak ezagutzea eta Kontzertu ekonomikoaren zerga-sistema aztertzea.

EDUKIAK

Euskal egitura sozio-ekonomikoa eta globalizazioa. EAEren Kontzertu ekonomikoa eta Nafarroaren Konbenio ekonomikoa. Zerga-politikak. Aurrekontu publikoak.

Euskara eta Euskal Kultura (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Soziologia eta Politika Zientzien arloan euskarak dituen erronkez jabetzea.

EDUKIAK

Hizkuntza komunikazio-prozesuan. Soziologiako eta Politikako testu-generoak. Kontsulta-tresnak.



LAUGARREN MAILA - 1. Lauhilekoa

Identitate eta Ideologia Politikoak

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

"Ideologia politikoak" kontzeptuaren izaera kritikoaz jabetzea. Tradizio ideologiko klasiko eta garaikideak jorratzen dituzten gaiak ezagutzea. Mugimendu politiko eta sozial garaikideetan ideologia politikoek duten eragina ulertzea.

EDUKIAK

Identitate politikoak eta ideologiaren eraikuntza. Eskumaren ideologiak. Ezkerraren ideologiak. Arrazismoa, Faxismoa eta indarkeriaren ideologiak. Identitate alternatiboak eta gizarte mugimendu berriak. Erlijioa eta politika. Nazionalismoak eta populismoak.

Antolakuntza, Kudeaketa eta Erabaki Publikoa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Gestio eredu desberdinei dagozkien atxikimendu ideologiko eta politikoak interpretatzea. Politika publiko prozesuetan parte hartzen duten agenteen identifikazioa egitea. Botere publikoek ebaluaketaz ulertzen dutena hautematea.

EDUKIAK

Antolakuntzaren teoriaren fokatzak. Administrazio publikoak eta antolakuntzaren teoria. Antolakuntza administratiboa eta berrikuntza. Administrazioa eta erabaki hartzea. Erabaki hartze prozesuetan parte hartzeko mekanismoak. Gestio Publiko Berria. Gestio publikorako tresnak.

Espainiako eta Euskadiko Sistema Politikoa

Nahitaezkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h Magistrala; 7 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Espainia eta Euskadiko errealitate politiko-instituzionalaren funtzionamendua ezagutzea. Zientzia Politikoko oinarriko kontzeptu eta tresna analitikoetan sakontzea, hauek Espainia eta Euskadiko kasuei aplikatuz.

EDUKIAK

Espainiako Estatuaren eraikuntza eta prozesu konstituziogilea. Espainiako prozesu politikoaren garapena eta eredu demokratiko espainiarraren ezaugarri nagusiak ikuspuntu konparatzailetik. Autonomia-estatuaren lurralde antolaketa. Euskal eredu instituzionalaren eraikuntza. Euskal autogobernuaren ezaugarri nagusiak eta erakundeak. Euskal prozesu politikoaren bilakaera.

Diplomazia eta Kanpo Politika (3A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Garrantzi eta konplexutasun handiko politika publiko bat ezagutzea. Estatuak eta estatuen mendeko eta estatuz kanpoko beste erakunde batzuek nazioarteko esparruan beren interesak defendatzeko dituzten tresnak ezagutzea.

EDUKIAK

Kanpo politikaren kontzeptua eta mugaketa. Erabaki organoak eta kanpo politika egitea. Erabaki ereduak kanpo politikan. Kanpo politikaren faktore baldintzatzaileak. Kanpo politika gauzatzea. Kanpo politika eta barne politika.

Komunikazioa Euskaraz: Gizartea eta Hizkuntza Praktika (euskarako taldea)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK


Komunikazio gaitasuna lantzea, ahozko zein idatzizko testuinguruetan. Modu eraginkor eta argian komunikatzea, ahoz zein idatziz, beste profesionalekin, erakundeekin eta hedabideekin, bakoitzaren maila eta beharretara egokitzuz eta moldeak birformulatuz.

EDUKIAK

Komunikazioa Soziologian eta Politika Zientzietan. Testu-generoak. Dibulgazioa Soziologian eta Politika Zientzietan. Euskara esparru publikoan. Hizkuntza-praktikak eta balioak. Euskararen corpusaren politika.

Prestakuntza Duala II

Hautazko ibilbidea. 24 kreditu. Praktika enpresa edo erakundeetan.



LAUGARREN MAILA - 2. Lauhilekoa

Globalizazioa eta Munduko Sistema Ekonomikoa

Nahitazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Ingurune politikoaren fenomenoak ikusteko ezaguera lortzea eta kontzeptu, teoria eta ikuspegi metodologikoen esanahi eta egokitasuna ulertzea. Jarrera kritikoa garatuz eta zorrotasuna erabiliz, arazo politiko eta gizartearen beharrei buruzko informazioa analizatzea.

EDUKIAK

Munduko ekonomiaren egoera orokorra. Munduko sistema ekonomikoaren bilakaera eta eraketa. Nazioarteko ekonomia erakundeak. Globalizazio ekonomikoa. Finantza-globalizazioa, krisia eta austeritatea. Munduko ekonomiaren beste erronkak.

Gatazken Analisia eta Ebazpena (3A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 21 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Nazioarteko gizarte garaikideko gatazkak aztertzea, barneko eta nazioarteko gatazken arteko elkarrekintza eta horiek bide baketsuen bitartez ebazteko edo eraldatzeko espektatibak azpimarratuko dituen ikuspegitik.

EDUKIAK

Askotariko hurbilketa teorikoak gatazkaren zientziara. Diziplina anitzeko oinarri teorikoak. Barneko gatazkak eta nazioarteko gatazkak. Diagnostikotik preskripziora. Desadostasunen konponbidetik segurtasun kolektibora.

Nazioarteko Gizartearen Arazo Globalak (3A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h Magistrala; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Arazo globalak analizatzea. Arazo globalak perspektiba funtzionalean aztertzea. Arazo globalak perspektiba normatiboan aztertzea.

EDUKIAK

Arazo globalen analisia: sarrera. Kontzeptu zehaztasunak arazo globalen aurrean. Arazo globaletatik ondasun publiko globaletara. Egiturak, interesak eta balioak arazo globalen azterketan.

Euskal Ekonomia Mundu Globalizatuan

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Ikuspegi kritikoa oinarrituz ekonomi globalizazioaren ezaugarri nagusiak, eragileak eta ondorioak ezagutu eta elkar erlazionatzea.

EDUKIAK

Ekonomi globalizazioa. Euskal Herriko ekonomia XIX. mendetik XXI. mendera. Euskal Herriko ekonomiaren egitura. Ekonomia soziala eta solidarioa eta globalizazioa.

Esku-hartzeko Teknikak Administrazioan (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h Magistrala; 7 h Mintegia; 14 h Gelako Praktika.

HELBURUAK

Administrazioaren esku-hartzeko erabakiak baldintzatzen dituen marko juridiko orokorra aztertu eta ulertzea.

EDUKIAK

Administrazioaren negozio jardura. Mugatze, antolamendu edo kontrol jardura. Zehapen jardura. Esku hartze administratiboa jabetzan eta desjabetzean. Zerbitzu publikoaren jardura. Sustapen jardura eta laguntza publikoak.

GRADU AMAIERAKO LANA

12 kreditu

3. EDO 4. MAILA - 1. Lauhilekoa

Komunikazio eta Marketin Politikoa (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Mintegia; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Politikaren, komunikazioaren eta marketinaren arteko harremana sakontzea eta lantzea. Komunikazio trebetasunak garatzea eta gauzatzea eta talde lana erabiltzea. Hauteskunde prozesuak ezagutzea komunikazio politikoko kanpainak diseinatzeko.

EDUKIAK

Politikaren eta komunikazioaren arteko harremanak. Komunikazio politikoaren eragileak eta kanalak. Marketin politikoa eta hauteskundeetakoak. Sistema politikoak eta komunikazio politikorako ereduak. Hizkera politikoa, diskurtsoak eta markoak. Komunikazioaren eta marketin politikoaren ondorioak.

Gatazka Politikoa eta Ekintza Kolektiboa (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Politikotasunaren erroak ulertzeko tresna teoriko analitikoak ezagutu eta erabiltzen ikasi. Euskal ekintza kolektibo gatazkatsu eta partehartzailearen gakoak identifikatu eta aztertzeko baliabide teoriko eta enpirikoak garatu.

EDUKIAK

Politikotasuna eta antagonismoa. Protestaren jatorria. Ekintza liskartsua aztertzeko tresna analitikoak. Ekintza kolektiboaren adierazpenak. Ordenu publikoa eta protestaren eragina. Liskarraren bilakaera eta kudeaketa partekatua.

Politika Publikoen Ebaluazioa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Programa, politika eta zerbitzu publikoen ebaluazioaren teoriari eta praktikari buruzko ikuspegi orokorra ematea, politika publikoen analisiaren esparru orokorrean ulertuta eta, gobernu hobia lortzeko kudeaketa tresna eta bitarteko gisa aplikatuta.

EDUKIAK

Ebaluazioa politika publikoen azterketan eta zikloan. Gobernu ekintzaren ebaluazioa: jatorria, bilakaera eta egungo egoera. Ebaluazioen tipologia, ebaluazioak betetzen duen eginkizunaren arabera, edukiaren arabera edo ebaluatzen den fasearen arabera, unearen arabera, agentearen arabera. Metodologia.

Generoa eta Politika (1A, 2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Sistema politiko adierazgarrien egitura eta funtzionamendua identifikatzea, banakako eta taldeko portaera politikoa eta horrek genero ikuspegitik dituen ondorioak ulertu eta aztertzeko.

EDUKIAK

Genero ikuspegiko zientzia politikoa. Eragile politikoak: mugimendu feminista eta berdintasun erakundeak. Emakumeen ordezkaritza politikoa. Berdintasun politikak.

Tokiko Gobernua (1A, 2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Toki erakundearen egitura eta funtzionamendua ulertzea, beren osagaiak eta jarduteko lege esparrua identifikatzeko. Tokiko hauteskunde prozesuak ezagutzea, lehentasun politikoaren eraketatik eta adierazpenetik hasi eta ordezkaritza logikara eta emaitzen analisisira arte.

EDUKIAK

Tokiko gobernua perspektiba konparatuan. Tokiko gobernuaren historia eta bilakaera. Udal gobernuaren esparru orokorra. Toki erakundearen tipologia. Tokiko gobernua: organo politikoak eta administratiboak. Udal hauteskundeak. Herriarren parte hartzea. Foru eta probintzia gobernuak.

3. EDO 4. MAILA - 2. Lauhilekoa

Hauteskunde Analisia eta Prospektiba (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 32 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika; 14 h. Ordenagailuko Praktika.

HELBURUAK

Analisi politologiko aplikatuaren tresnekin eta mekanikarekin ohitzea, arazoaren planteamendutik diagnostiko txosten bat edo proposamen txosten bat egin arte.

EDUKIAK

Hauteskundeak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian. Politika eta hauteskunde azterketa motak. Hauteskunde portaeraren ereduak eta lehiaketaren egitura. Hauteskundeetan parte hartzea. Hauteskunde portaeraren oinarri sozialak. Botoaren faktore politikoak.

Aldaketa eta Berrikuntza Publikoa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Kudeaketaren eta sektore publikoaren barruko ikuspegi berrienei eta praktika berritzaileenei heltzea. Gure inguruko administrazio publikoen egungo egoera, aldaketa prozesuak eta abar argitzea.

EDUKIAK

Modernizaziotik berrikuntzara: bilakaera eta ezaugarriak. Gobernantza berria. Gobernu elektronikoa eta bere bilakaera. Gobernu irekia: jatorria, ezaugarriak. Berrikuntza sektore publikoan: zer esan nahi duen, nola agertzen den eta etorkizuneko erronkak.

Giza Baliabideen Kudeaketa (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 39 h. Magistrala; 7 h. Mintegia; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Diziplinaren bilakaera historikoaren jakitea eta horrek errealitatean duen islan sakontzea. Giza faktoreak erakundeetan duen garrantzia ezagutzea. Lanbide eremuan gehien erabiltzen diren ikerketa teknikekin lotutako tresna batzuk erabiltzea.

EDUKIAK

Gizarte modernoa, berrikuntza eta giza baliabideen kudeaketa. Kontzeptuak, oinarriko printzipioak eta egungo ikuspegi administratiboak. Giza baliabideen kudeaketa sektore publikoan. Giza baliabideen analisia eta plangintza. Plantillak egituratzea eta gaitasunen araberraketa. Hautaketa. Prestakuntza, orientazioa eta garapen profesionala. Jardutearen ebaluazioa. Zuzendaritza eginkizuna administrazio publikoetan. Kultura korporatiboa. Motibazioa eta lan giroa. Lidergoa eta ekipoen kudeaketa. Etika publikoa.

Gobernantza eta Maila Anitzeko Gobernua (2A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Gobernantzaren inguruko kontzeptuak lantzea, maila ezberdineko Administrazioa, Administrazio funtzionala eta erakundearteko harremanak.

EDUKIAK

Gobernantza. Administrazio publikoen tipologiak. Administrazioa lurralde maila ezberdinetan. Administrazio funtzionala. Erakundearteko harremanak.

Interes Taldeak eta Gizarte Mugimenduak (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 53 h. Magistrala; 7 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Ekintza politikoa eta horrek erabaki publikoetan, estrategietan eta ekintza kolektiboari eta eragile eta talde politikoaren ekintza politikoari lotutako teorian duen eragina aztertzea, interesen ordezkartzearen esparruan.

EDUKIAK

Ekintza kolektiboa zientzia politikoan. Eragileak prozesu politikoan: ikuspegi bat gobernantzatik. Interes taldeak. Eragile kolektibo hibrido "berrien" larrialdia eta hazkundera. Gizarte mugimenduak.

Parte-hartze Politikoa (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Parte hartze politikokoaren eta, bereziki, herritarren parte hartzearen elementu nagusiak identifikatzea eta kokatzea. Plangintza parte hartzailea egitea.

EDUKIAK

Parte hartzearen ipuina. Parte hartzeaz ari garenean zertaz ari garen. Garapen metodologikoa. Parte hartzearen korapiloak.

Sistema Politikoak Munduan (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Ezagutu metodo konparatua politika eta administrazio zientzietan. Sistema politikoen konparaketa politologikoaren teoria eta ikuskera metodologiko nagusiak ezagutu. Egungo sistema politikoak ezaugarritu eta sailkatzeko gaitasuna garatu, sistema bakoitzak duen antolaketa eta funtzionamenduaren arabera.

EDUKIAK

Estatuen geopolitika eta sistema politikoarekin duten harremanak. Sistema autoritarioak, erregimen hibridoak eta esperientzia liberalak XXI. mendean. Latinoamerikako sistema politikoak. Eremu euroasiarrekiko sistema politikoak. Ekialde Ertaineko sistemak. Asiako hego ekialdeko sistema politikoak. Afrikako sistema politikoak.

Garaiko Politikaren Teoria II (1A)

Hautazkoa. 6 kreditu. Irakaskuntza mota: 46 h. Magistrala; 14 h. Gelako Praktika.

HELBURUAK

Autore nagusiak zein diren eta XX. eta XXI. mendeko zientzia politikoaren arau eztabaidari egiten dioten ekarpena aztertzea. Diziplinaren garapen teorikoaren garai nagusiak markatu dituzten egile handien obra ezagutzea. Diziplinaren korrante teoriko garaikideak, beren arteko harremana, argudioak, ekarpenak, jorratu dituzten gaiak eta politika modernoaren ikuspegian duten eragina ulertzea.

EDUKIAK

Marxismoaren, sozialismoaren, feminismoaren, anarkismoaren, faxismoaren, ekologismoaren eta neoliberalismoaren oinarri kontzeptualak eta teorikoak. Egungo kapitalismoaren, patriarkatuaren eta demokraziaren oinarri kontzeptualak eta materialak. XIX. mendetik gaur egunera arte nagusi izan ziren korronteen errepasoak. Gizarte biopolitikoak, diziplinazko gizartea, segurtasun eta kontrol gizartea eta panoptismo digitalarekiko eta egungo bioteknologiarekiko harremana. Pentsamendu kristau, liberal eta heterosexuala egungo ezkerrean, pentsamendu arrazista eta supremazista. Korrante ideologikoak eta egungo mugimendu sozialak.

Praktikak enpresetan

Hezkuntzarako lankidetzak praktikek aukera ematen dizute **enpresa eta erakunde publiko zein pribatuen errealitatera hurbiltzeko** eta, hartara, langunean bertan ezagutzeko laneko ohiturak eta trebetasunak. Horrela, zure prestakuntza akademikoa osa dezakezu eta lan esperientzia eskuratu, titulazioan ikasitakoarekin zerikusia daukaten atazak eginez.

Praktikak borondatezkoak dira graduako **hirugarren eta laugarren mailetan**. Fakultateko irakasleen tutoretzapean egiten dira, eta haiengatik ikasleei 6 kreditu aitortzen zaizkie, hautazko irakasgaiekin egiten den bezala.

450

hitzarmen baino
gehiago
hezkuntza
lankidetzarako

900

plaza baino
gehiago
praktiketarako

600

enpresa eta
erakunde
laguntzaile
baino gehiago

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoko Graduak ikasleek praktikak egiteko **50 enpresa, instituzio, elkarte eta fundazio baino gehiago** daukazue zuen esku, besteak beste:

- Euskobarometro
- Udalak
- Merkatu ikerketak egiteko enpresak
- Gobernuz Kanpoko Erakundeak
- Erakunde publikoa
- Etab.

Fakultateko webgunean lauhilabeteko bakoitzean eskaintzen diren plaza guztien **informazio gaurkotua** ikusgai dago: enpresa, eginkizunak, betebeharrak eta ordainsaria.

Mugikortasun programak

Graduko bigarren mailatik aurrera, ikasleek bi mugikortasun programatan parte har dezakete, egonaldiak egiteko atzerriko eta estatuko beste unibertsitate batzuetan ikasten. Ikastaldiaren epea aukera dezakete: lauhileko bat edo ikasturte osoa.

Hauek dira mugikortasun programak:

1. **Erasmus+**, Europako unibertsitateetarako: Alemania, Belgika, Danimarka, Erresuma Batua, Frantzia, Herbehereak, Italia, Norvegia, Suedia, besteak beste.
2. **UPV-AL**, Latinoamerikako unibertsitateetarako: Argentina, Brasil, Kolonia, Mexiko, Peru, Txile, besteak beste.
3. **Beste Norakoak Programa**, AEB, Kanada, Hego Korea, Filipinak eta Japoniako unibertsitateetara joateko.
4. **SICUE**, Estatu Espainiarreko unibertsitate nagusien arteko trukearako.

Nazioarteko mugikortasun programetan ikasleek ingelesez, frantsesez edo alemanez ikas dezakete. Horretarako, ikasleak hizkuntza horietan gaitasuna daukala egiaztatu beharko du.

230

plaza baino
gehiago
Europako
unibertsitateetan
egonaldiak egiteko

50

plaza baino
gehiago
Latinoamerikako
unibertsitateetan
egonaldiak egiteko

140

plaza baino
gehiago
Estatuko
unibertsitateetan
egonaldiak egiteko

MUGIKORTASUN PROGRAMAK

- SICUE
- ERASMUS +
- Latinoamerika eta Beste Norakoak.

